



LANKIDETZA-AKORDIOA, EUSKADIKO AIRE KIROL FEDERAZIOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN ARTEKOA

BILDURIK

JON ARRUTI ALTUBE, EUSKADIKO AIRE KIROL FEDERAZIOAREN izenean eta hura ordezkatuz (aurrerantzean, Euskadiko Federazioa), entitatearen lehendakari gisa eta bere eginez entitatearen estatutuek eta Euskadiko Kirol Federazioen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 100. artikulua ematen dizkioten ordezkari-ahalordeak. Euskadiko Federazioa inskribatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan; haren IFK G-20193454 da, eta egoitza, berriz, Bilboko Julian Gaiarre, 44 etorbidean (48004 posta-kodea) dauka.

GORKA ITURRIAGA MADARIAGA JAUNA, EUSKO JAURLARITZAKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN izenean eta hura ordezkatuz, zeinak egoitza baitu Vitoria- Gasteizko Donostia-San Sebastián kalean (01010 posta-kodea).

Elkarri aitortzen diote gaitasun nahikoa eta egokia dutela agiri hau sinatzeko, eta

AZALTZEN DUTE

- I. Egiaztatuta dago ezen, kirol-jardueraren ingurumarian, indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak gerta daitezkeela kirolean.
- II. Pertsona federatuak izan daitezke kirol-jardueraren esparruko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzen egile edo biktima, eta ekintza horiek federazio-jardueretan gerta daitezke.
- III. Aurreko ataletan adierazitakoa oinarri hartuta, bai Euskadiko Federazioak, bai Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak egokitzen jo dute jarduera-esparru bat ezartzea ikertzeko zer indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-kasu gerta daitekeen kirol-eremuan, eta kasu horiek prebenitzea eta, behar izanez gero, zehatzea.



- IV. Hala, Tratu Berdintasuna eta Diskriminaziorik Eza Lortzeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralak nola Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeak ezartzen dute kirol-jarduerak eremu bat direla, zeinean botere publikoek betebeharra baitute baldintzak sustatzeko berdintasun erreala eta efektiboa lortzeko, eta ezabatzeko zer eragozpen egon daitekeen hori lortzeko; beti ere, errespetatuz tratu-berdintasunerako eskubidea eta gizakiaren duintasuna, eta albo batera utziz legeek aurreikusten duten edozein diskriminazio-mota.
- V. Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen arabera, kirol-federazioek betetzen dituzten administrazio-funtzio publikoen artean sartzen da hala federazioen erregelamenduak onartzea nola diziplina-ahala baliatzea.
- VI. Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 16.1 artikulua hau ezartzen du: *«Kirol federazio bateko lehendakari kargua bateraezina izango da beste kirol federazio bateko lehendakari karguarekin, beste kirol modalitate bateko federazioa izan arren. Horretarako, elkarrekin lankidetzaz hitzarmenak egin ahal izango dituzte, helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordeturiko funtzio publikoei zuzenean loturiko gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horien izaera juridiko administratiboa izango da»*.
- VII. Aurreko apartatueta adierazitakoaren argitan, dokumentu hau sinatzen duten alderdiek erabaki dute lankidetzaz-akordio hau formalizatzea estipulazio hauen arabera:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- Xedea.

Dokumentu honen xedea da lankidetzaz-esparru bat ezartzea Euskadiko Federazioaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren artean, prebenitzeko eta ikertzeko zer indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintza gertatzen den kirolean, arreta berezia jarriaz ekintza horiek adingabe, nerabe eta emakume nagusien kontrakoak direnean; eta, behar izanez gero, ekintza horiek zehatzeko.

BIGARRENA.- Euskadiko Federazioaren betebeharrak.

Euskadiko Federazioak, bere organo sozialen nahitaezko akordio bidez, betebeharrak izango ditu:

- a) Bere barnean, erregelamendu bat onartzea, kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak prebenitzeko eta zehatzeko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak horretarako ezarritako ereduari jarraituz.
- b) Beharrezkotzat jotzen denean, aldatzea kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak prebenitzeko eta zehatzeko erregelamendua.
- c) Elkarlanean aritzea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Kirol Federazioen Batasunarekin, Federazioen Batasunak zer erabakitzen edo gauzatzen duen kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak prebenitzeko, jarduera horiek betetzeko.
- d) Kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-gaietan indarrean den erregelamenduan zer egintza eta jarduketa aurreikusten den beharrezko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea ekintza eta jarduketa horiek betetzeko.
- e) Bere organo eta langileen bidez, elkarlanean aritzea indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio- arloko arau-hausteei buruzko diziiplina-espeditente zehatzaileak abiarazi, izapidetu eta ebatzi ahal izateko.
- f) Diziiplina-organoari eta gainerako agintari eskudunei jakinaraztea zer informazio edo datu ezagutzen duten kirol-arloan gerta daitezkeen indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzei buruz eta, batez ere, legez kontrako ekintza edo arauetan aurreikusitako arau-hauste izan daitezkeenei buruz.
- g) Zabalkundea ematea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak kirol-arloko indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioari buruz argitaratzen duen informazio eta dokumentu guztiei.



- h) Parte hartzea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren bitartez, antolatzen dituen dibulgazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-kanpaina eta -jardunaldietan.
- i) Konfiantzazko pertsona bat eta adingabeak babesteko delegatu bat izatea jorratzeko zer indarkeria, intolerantzia eta diskriminazio jasan dezaketen helduek edo adingabeek kirol-arloan. Pertsona bakarrak egin ahal izango du lan hori, eta berak izan beharko du Euskadiko Federazioaren bozeramalea eta arduraduna Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren aurrean, kirol- eta federazio-jardueren eremuko gai guztietan. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak zer informazio-, prestakuntza- edo birziklatze-jardunaldi antolatzen dituen Euskal Kirol Federazioen Batasunaren bitartez, haiek guztietan parte hartu beharko du federazio-arduradunaren figurak, bakarrak ala biek, figura horiek lantzen baitituzte kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-gaiak.
- j) Eta, oro har, bete beharko dituzte arlo horretan indarrean dauden xedapen arauemailetan ezarritako betebeharrak guztiak.

HIRUGARRENA. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren betebeharrak.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Kirol Zuzendaritzak betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Erregelamendu bat prestatzea prebenitzeko eta zehatzeko kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak, eta Euskadiko Federazioak bere barnean erregelamendu hori onar dezan.
- b) Euskadiko Federazioari proposamenak egitea alda dezan Kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-ekintzak prebenitzeko eta zehatzeko Erregelamendua, entitate horrek erregelamendua egokitu dezan, egokitu behar badu.



- c) Euskadiko Kirol Federazioen Batasunarekin lankidetzan, programa bat egitea, prebenitzeko zer indarkeria-, intolerantzia eta diskriminazio-ekintza gerta daitezkeen kirol-arloan.
- d) Euskadiko Federazioarekin lankidetzan aritzea behar beste egintza eta jarduketa burutzeko araudi eta erregelamenduak bete daitezen, indarrean daudenak kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-gaiei buruz.
- e) Euskadiko Federazioaren esku jartzea Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordea (KIIDDB). Batzorde hori Euskal Kirol Federazioen Batasuneko zerbitzu espezializatu bat da, profesional-talde batek osatua, zeinak diziiplina-espeditente zehatzaileak ikertu, izapidetu eta ebazteko lanak egingo baititu arau-hausterik dagoenean kirol-arloko indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioa dela-eta; betiere, auziak federazioaren arlo subjektibo, material eta objektiboaren esparrukoak badira.
- f) Behar beste informazio eta dokumentazio zabaltzea kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-gaiei buruz.
- g) Zabalkunde-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak eta -jardunaldiak antolatzea kirol-arloko indarkeriari, intolerantzia eta diskriminazioari buruz.
- h) Euskadiko Federazioari jakinaraztea zer informazio edo datu ezagutzen diren kirol-arloko indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari buruz.
- i) Eta, oro har, betetzea arlo horretan indarrean dauden xedapen arauemaileetan ezarritako betebeharrak guztiak.

LAUGARRENA.- Diziplinazko zehapen-espeditenteak, kirol-arloko indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren inguruko arau-hausterik gertatzen denerako.

1.- Alderdiak ezartzen dute ezen estipulazio honetan aurreikusitakoaren arabera burutuko direla espeditenteen gaineko diziiplina-ahalaren inguruko alderdi guztiak, arau-haustea federazio-eremuan gertatzen direnean eta zerikusia dutenean kirol-arloko



indarkeriarekin, intolerantziarekin eta diskriminazioarekin; izan ere, estipulazio hau Euskadiko Kirol Federazioak arautzen dituen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 16.1 artikulua babesean prestatu da. Horiek horrela, lankidetzakordio hau izaera hitzarmen juridiko administratibotzat joko da, aipatutako arau-manuan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

2.- Alderdiek ezartzen dute ezen, federazioaren eremuan, KIIDDBk ikertuko dituela kirol-arloko indarkeriarekin, intolerantziarekin eta diskriminazioarekin lotutako gai guztiak, eta batzorde horrek egingo dituela haiei buruzko diziiplina-epaiketak; izan ere, KIIDDB diziiplina-batzorde espezifikoa eta espezializatua da, Euskal Kirol Federazioen Batasunak bere entitate elkartuen esku jartzen duena federazioaren arlo subjektibo, material eta objektiboaren esparruko auzietarako.

3.- Gai horretan egin daitezkeen arau-haustek-direla-eta diziiplina-ahalaz baliatuz, KIIDDBk bere baliabide pertsonal eta material propioak erabiliko ditu.

4.- KIIDDBk ezagutzen badu ekintzarik edo inguruabarrik gertatu dela indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren inguruko arau-haustetaz jo daitekeenik edo arau-hausterik era dezakeenik, kasuan kasuko diziiplina-espedientea hasiko du, eta espedientea hasteko akordioaren berri emango die Euskadiko Federazioari eta interesdun izan daitezkeen pertsona edo entitate guztiei. Euskadiko Federazioak ezagutzen badu egintzarik edo inguruabarrik gertatu dela indarkeriaren, intolerantziaren eta diskriminazioaren inguruko arau-hausterik izan daitekeenik, dagokion diziiplina-espedientea irekiko du; horren berri emango dio KIIDDBri, eta eskura dituen dokumentuak edota informazioa aurkeztuko dizkio.

5.- Estipulazio honetan xedatutakoaren arabera, Euskadiko Federazioari jakinaraziko zaio zer ebazpen ematen den ustez kirol-arloko indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari buruzko arauak haustearren hasten eta KIIDDBek izapidetzen dituen diziiplina-espedientei amaiera emateko; ebazpen horiek, bestalde, interesdun izaera duten gainerako pertsona edo entitatei ere jakinaraziko zaizkie.

6.- Estipulazio honetan xedatutakoaren arabera, ustez kirol-arloko indarkeriari, intolerantziari eta diskriminazioari buruzko arauak haustearren hasten eta KIIDDBek izapidetzen dituen diziplinazko espedienteen ebazpenen kontra, interesdunek

errekurtsoak jarri ahal izango dituzte, hain zuzen ere dagokien erregelamenduan aurreikusten direnak.

7.- Estipulazio honetan aurreikusitakoaren babesean baliaturiko diziiplina-ahalaz baliatzeak ez du galaraziko bestelako jarduketarik egitea, agintari eskudunek beste jurisdikzio edo esparru batzuetan gara dezaketenik.

BOSGARRENA.- Datu pertsonalen babesaren arloko erantzukizun eta betebeharren araubidea.

1.- Lankidetzakordio hau sinatzen duten alderdiek nahitaez bete beharko dituzte datu pertsonalak babesteko arloan aplikatzekoak diren arau-xedapenak; alegia, garatzen dituen jarduketan ondorioz edo baliatzen duen diziiplina-ahalaren ondorioz irispidean dituen datuei edo informazioei dagokienez.

2.- Alderdiek nork bere datu pertsonaleko fitxategi eta tratamenduen erantzukizuna izango dute, haietara jotzen dutenean kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-arloan dihardutelako.

3.- Alderdi bakoitzak kontrako alderdia salbuesten du datu pertsonalen tratamenduan edozein eratako erantzukizuna sorraraz dezakeen zeinahi urraketa edo ez-betetzeren aurrean.

4.- Alderdiek konpromisoa hartzen dute ezen, beharrezkoa denean, datu pertsonalak tratatzeko baimena —lagatzekoa barne— lortzeko, dela titularren beraren baimenaren bidez —federazio-prozeduretako inprimaketan edo aktetan izenpetuta—, dela tratamendu eta datu-lagapen horiek baimentzen dituzten aurreikuspenak dagozkion arau-xedapenetan txertatuz.

SEIGARRENA.- Iraupena.

1.- Lankidetzakordio honek ondorioak izango ditu alderdiek sinatzen duten egunetik aurrera.



2.- Hasieran, lankidetza-akordio honen iraupena lau urtekoa da, sinatzen den egunetik aurrera. Hala ere, alderdietako batek ere salatu ezean, berez luzatuko da, urtez urte.

ZAZPIGARRENA.- Suntsiarazpena.

1.- Lankidetza-akordio hau indarrean dagoen bitartean, alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du, askatasun oso, berau suntsiarazteko.

2.- Alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du lankidetza-protokoloa suntsiarazteko, baldin eta uste badu nabarmen urratu direla beste aldeak bereganatutako betebeharrak edo konpromisoak.

3.- Alderdietako batek jakinaraziz gero lankidetza-akordioa suntsiarazten dela, horrek berehala izango ditu ondorioak, eta atoan amaituko da lotura.

4.- Lankidetza-akordioa suntsiarazi arren, alderdiek bete egin beharko dituzte beren betebeharrak, kirol-arloko indarkeria-, intolerantzia- eta diskriminazio-gaietan dituztenak, indarrean den legeak xedatutakoaren arabera.

5.- Lankidetza-akordio hau suntsiarazteak ez du ekarriko betebeharririk edo eskubiderik inolako konpentsazio edo kalte-ordainik ordaintzeko edo eskatzeko.

Eta frogatzeko bat datozela arestian adierazitako guztiarekin, aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan eta orri guztietan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

*EUSKADIKO AIRE KIROL
FEDERAZIOA*

*JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN
ZUZENDARIA*